

Bildu dira: Aingeru Irigaray jauna, buruaren orde, Lekuona, Mitxelena, Villasanté, eta Gorostiaga jaun euskaltzaiñak. Artola, Zugasti, Loidi, Zubicaray, Etxaniz, Zabala, eta Irigoyen jaun urgazleak. I. Maria Etxaide jaunak ezin etorria adierazo dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da ta ontzat artu da.

Leon Leon jaun urgazlea il da. Agertu bedi gure atsekabea.

Aita Felipe Murieta-koak bialdu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu urgazle izentaua izan dalako.

“Ibero-Amerikanische Bibliothek-ek Berlin-Lankwitz-etik bialdu dauen karta bat irakurri da. Euskera aldizkaria artu gura leukie. Bialdu bekiez 1956 urtetik orainarte agertu direan numeroak duban. Aurrerantzean suskriizioz.

“Junta de Cultura de Vizcaya”-k, imini dituezan sari biren oiñarriak bialdu deuskuz. Lenengoaren gaia da: “Origenes del vascuence y proceso evolutivo de sus formas dialectales”, eta saria ogetabost milla pesetakoak.

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak erantzuten dauenean zabaldu beitez aurtengo poesia sarien oiñarriak. “Lizardi” sariarenak igazkoak lakoak izango dira.

Luis Sala Balust jaunak Aita Luis Villasanté-ri zuzendu deutsan karta bat irakurri da. Axular-en *Gero* argitaratzeko gitxienez bosteun ale aurretik erosi daiguzan bear leuké. Itandu bekio ale baktxaren prezioa zeinbat izango litzakean.

Euskal gramatika barriaz I. M.^a Etxaide, Fagoaga, eta Erquiaga jaunak bialdu dituezan oarren gaiñean berba egin da. Urrengoan jarraituko da beste oarrakaz.

Arruza jaunak jagon-sailleko buruari zuzendutako karta bat irakurri da. Itxi bekio jagon-sailleko buruari.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

A. Irigaray

L. Mitxelena